



Helduen Literatura

Egia esan
Peru Magdalena
Elkar, 2003

Abentura literarioa

EGIA ESAN, ez dakit nola definitu Peru Magdalenen azken lana: kontakizun luzea, nobela, nobela bat idazteari buruzko abentura, abentura bati buruzko nobela. Nolanahi ere, liburuak berak definizio moduko bat ematen digu -tura atzizkiaren eratorpen bi baliatuz. Bizitzan fisikoki emandako bilaketa: abentura. Eta bizitza orrira iraultzen duena: literatura (236. orr.).

Egia esan, halaxe izena baitu liburuak, modu arrunt batean abiatzen da. Arri eta Kleo hizketan ari direla, jakingo dugu gauzak ezkutatzen dizkiola Arrik Mariari. Arri bizitza maitatu eta disfrutatzearen aldeko pertsonaia da. Alegia, “ulertezina iruditzen zitzaion, ulertezina baino gehiago onartezina, bizitza bakar batekin konformatzea” (13. orr.). Filosofia horren jabe, “gauzak ez dira sekula dirudite-nak”, “bizi itzazu hainbat bizitza bizitza bakarrean” eta horrelako esalditan sinisten zuen Kimuren aitak, behin Mongoliara alde egin zuenak eta inoiz itzuli ez zenak. Baina, egia esan, nor zen Arri?

Artista, abeslari, poeta, Eusko Jaurlaritzako par-taide, eta abar. Orotariko bertsioak existitzen dira Arriren inguruan. Horrexegatik, egia bilatzearen ideiak itsututa, Kimuk, bere aitak behin egindako bidaia berregingo du: “Baina bidaia bat ezin da berregin. Bidaia bat egiteak bidea egitea esan gura

du” (145. orr.). Honela agertuko zaigu Kimu, liburuaren hirugarren zatian, bere abenturaren kontari eta, konturatu gabe ere, literaturaren egile. Emeki-emeki, egiaren bilaketa zena interpretazio pertsonala bilakatzen da, kimu horretatik adar berria jaio-tzen hasiz. Kimuk ulertuko du azkenik bere izenaren esanahia.

Zenbait momentutan istorioa luzeegia suertatu zait, baita aspergarria zenbait kasutan ere. Aita/ seme arteko konfliktoaz gainera, bidai iniziati-koaren ideiek ez dirudite originalegiak. Aita ezagutu zutenen mikroistorio eta testigantza txertatuek erritmoa astuntzen dutela iruditu zait, nahiz eta ulertzen dudana liburuari abiatu duen konfliktoari forma ematearren baliatu behar izan direla.

Zer da liburuari eusteak lagundu nauena? Zer da harengan sinistera bultzatu nauena? Burutazio-rako eskaintzen duen aukera. Alegia, istorioaren hari narratiboa gainditzen duten esaldi, komentario edota erreferentzia literarioetan topatu dut nire -tura atzizki propioa. Eta hori da literaturaz espero izaten dudana; fikzioaren bitartez errealitatea ezagutzen sakondu ahal izatea. ■

Saioa Ruiz Gonzalez



blogetan!
BLOG IZARREN BILA

Bozkatzeko bi modu:

- Webgunearen bidez erregistratuta
- Norberaren twitter kontutik

Bozkek emateko epea ireki da Urtarrilak 27 - Otsailak 16

www.blogetan.com

Antolatzailea

SARIAK: Bernat Vidal artistaren garaikurra | 200€ diru txekia | ARGIA kolaboratzeko aukera

Laguntzailea